

San Ferminetan, Lesakan



Asier Asua - Gorka Virto
DBH4, 2015

Aurkibidea

John Andueza.....	3
Sarrera.....	4
<i>San Ferminetan, Lesakan</i>	
• Kokapena.....	4
• Gaia.....	5
• Argumentua.....	5
• Istorioa.....	6
• Pertsonaiak.....	8
• Egituraketa.....	8
• Baliabideak.....	9
Iritzia.....	9
Bibliografia.....	10
Webgrafia.....	11

John Andueza

John Andueza Altuna. Burns, Oregon, Estatu Batuak.

Kazetaritzan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Bi aldiz irabazi du "Rikardo Arregi" kazetaritza saria.

1993tik ETBko hamaika saiotan aritu da zuzendari, aurkezle, gidoilari, edota aktore gisan: "Hor dago koska", "Elkanotarrak", "Goenkale", "Hasiberriak", "Trikitraka Trikitron".. e.a.

Zinemagintzan, lau laburmetrai zuzendu ditu: "*Laugarren Galeriatik*", "*Bernar*", "*Aita Gurid*", eta "*Bilintx*". Eta bi luzemetrai ere zuzendu ditu: "*Fatimetu*", eta "*Simplemente*".

Idazle gisan, "Donostia Hiria Ipuin Lehiaketa" eta Bilboko "Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa" irabazi ditu.

2012an bere lehenengo nobela publikatu zuen Elkar argitaletxearekin:

"*Larunbatean Bukowskyn*".

Bereziki gazteei zuzendutako liburua da, Donostiako institutu batean gertatutako peripezien kronika martxosoa. Nobelak izandako arrakastaren ondorioz "*San Ferminetan, Lesakan*" izeneko beste nobela bat argitaratu du.



Sarrera

2014. urtean argitaratutako umorezko nobela da hau.

John Anduezak Donostiako Bilintx institutuko, DBHko 4. mailako abenturak kontatzen dizkigu: Danel eta Ximon lagunak dira protagonistak, baita Ximonen andregai Amaia, eta gelako gainontzekoak ere.

Ikasketa-amaierako bidaia egiteko asmoa dute, eta horretarako dirua lortzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte, baina halako batean ezusteko bat gertatu, eta beste bide bat hartuko dute gertakariak.

Istorio osoa Donostian gertatzen da. Protagonistak gain, Andrea, Ximonen auzoko gaixoa pertsonai nagusi bat da ere.

Genero narratiboa dauka eta lekuko narratzailea erabiltzen du. Bilintx institutuan gertatzen diren ekintzak kontatzen ditu. Gainera pertsonai bakoitzak hitz egiten duenean bere izena beti jartzen du hasieran

Kokapena

Nobela honen istorioa Donostian gertatzen da, konkretuki Bilintx institutuan eta 31 de Agosto kalean non Ximonek lokal bat duen.

Pertsonai nagusiak Danel, Ximon eta Amaia dira. Pertsonai sekundario batzuk Andrea, Nikolas Egidazu eta Txomin Atorrasagasti.

Gaia

Danel mutiko oso jatorra da. Mutilen artean oso ondo konpontzen da baina neska bat edo publiko baten aurrean hitz egin behar duenean lotsa ematen dio eta bere baitan ezkututzen da. Bere lagun mina Ximonek eta Ximonen neskalagunak Amaia saiatuko dira Danelen lotsa kentzen eta azkenean lortuko dute.

Argumentua

Donostian Danel Zubiaga deituriko mutiko bat bizi da bere aita eta amarekin. Danel ume bakarra da eta horrekin doazen pribilegioaz gozatzen du. Ximon, bere lagun mina, eta biok klase berberan daude, 4En. Klase horretan bakarrik 14 ikasle daude, baina ikastetxeko berritsuenak eta jasanezinak dira.

Bilintx institutua kurtso amaierako bidaia bat egin nahi du Saloura, baina horretarako dirua jaso behar da. Zoritxarrez 4Ekoei tokatu zaie dirua lortzea. Ekintza batzuk ospatu eta gero diru nahikoa bildu dute Saloura joateko, baina Ximon diru guztia lapurtzen du bere auzoko Andreari laguntzeko.

Azkenean Ximon Bilintx institututik kanporatzen dute eta Amaiarekin amaitzen du, Daneli bidea libre uzten Amaiarekin egoteko.

Istorioa

- 2013ko abenduak lau, Danelen etxera bueltatzen da bere hiru suspentsoekin. Orduan, bere aita etxean ez dagoenez eta bere ama ez denez konturatu notak eman dituztela, berri txar hori pasatzen usten du eta bere lagun minarekin, hau da, Ximonekin geratu da eta txokoan filme bat ikusten dute.
- Egun zoriontsu batean, Danel klasean zegoela, Mamerto irakaslea sartzen da eta ikasle guztiak aztoratu egiten ditu esaldi bakar batekin: "Ostegunean Nelson Mandela hil zen", orduan, eskola guztia horri buruz eztabaidatzen egoten dira.
- Patio orduan, Danel eta Amaia bakarrik geratzen dira eta musika pixka bat entzuten pasatzen dute denbora Ximon ailegatzen den momentu arte, orduan, Ximon eta Amaia bakarrik joaten dira baina hortik denbora gutxira, klasera sartzeko txirrina jotzen du eta barrura sartzen dira guztiok.
- Asteazkena, abenduak hamaika. Barrabas tutorea arratsaldeko azken orduko klasea ematen du eta amaieran, aipatzen du kurtso amaierako bidaiarena. Gai honekin amaitzeko eta nora joan ahal diren erabakitzeko, Barrabas tutorea, nora joan nahi diren buruzko idazlan bat bidaltzen die etxerako lanak bezala.
- Osteguna, abenduak hamabi. Ikasle guztiek haien idazlanak irakurtzen dituzte baina azkenean ez dira erabakitzen eta orduan, erabakitzen dute 4. mailako ikasle guztiekin bilera bat egitea, hor guztien artean erabakitzeko.

- Ostiral arratsaldea. 4. maila guztia elkartzen da eta erabakitzen dute San Joanetako astean bidaiatzea, bidaiarako jaso behar den dirua 4E egin behar duela eta Saloura bidaiatuko dutela.
- Larunbatean, 4E klasea, Ximonen txokoan geratzen dira eta hor erabakitzen dute Ximon baimena eskatu behar duela kontzertua Bilintxeko patioan antolatzeko, Amaia eta Danel Pilare Carmonarekin hitz egin behar dutela ia kontzertua eman nahi badute ala ez eta Danel izango dela diruzaina.
- Hau guztia erabakita, 4Ekoek, 4. mailako ikasle guztiei 5€ eskatzen diete ikas bidaiarako eta horrez gain, kontzertua egiteko baimena lortzen dute baina arau askorekin.
- Osteguna, abenduak hemeretzi. Danel eta Amaia musikariekin geratzen dira Ximonen txokoan eta zorionez, dohainik joko dute kontzertuan.
- Abenduak hogeia. Ikasle guztien egunik hoberena, Gabonetako oporrak. Baina Ximontzat bere bizitzako egunik txarrenetarikoa da. Etxean dagoela, ambulanzia bat entzuten du eta orduan ikusten du nola bere auzokoa ospitalera eramaten ari diote haren leuzemia dela eta.
- Abenduak hogeita zazpi, ostirala. Kontzertuaren eguna ailegatu da. Ideia honekin 4. mailakoek diru asko lortzen dute eta orduan Danelek diru hori zuzendariaren gelan gordetzen du. Baina Danel dirua seguru ez dagoela pentsatzen duenez, haren tutorearekin geratzen da astelehenean eskolara bueltatzeko, dirua hartzeko eta bankuan sartzeko.
- Astelehena ailegatzen da eta orduan Barrabas eta Danel diruaren bila abiatzen dira. Baina ailegatzean ikusten dute dirua desagertu egin dela.

- Asteartea, urtarrilak zazpi. Oporrak amaitu dira eta orduan diruarekin gertatu den arazoa kontatu behar dute. Horretarako tutorea hasten da eta horri buruz hitz egiten denbora bat pasa eta gero, Ximon onartzen du bera izan zela dirua lapurtu zuela. Horregatik eskolatik kanporatzen dute. Orduan Danel berarekin hitz egiten du eta azkenean Ximonek esaten dio dirua lapurtu zuela bere auzokoari laguntzeko.
- Hurrengo egunean, Danel bilera bat egiten du 4. mailakoekin eta kontatzen die zergatik Ximonek lapurtu zuen dirua, orduan guztiek Ximon barkatzen dute eta Nafarroako herri kuttun batera joango diren bidaian joateko gonbidatu dute.

Pertsonaiak

Danel Istorioiko protagonista, 15 urteko mutil jatorra, atsegina, lasaia, ez oso hiztuna, katramila gutxitan sartzen dena eta ikasketetan ez oso ona da. Begi urdin-urdinak ditu. Mutilen artean oso ondo konpontzen da baina neska edo publiko baten aurrean hitz egin behar duenean lotsa handia pasatzen du. Bilintx institutuko DBH 4E klasean ikasten du eta han bertan bere lagun onena Ximon, eta Ximonen neska-laguna Amaia, daude. Daneli asko gustatzen zaio Amaia.

Ximon 15 urterekin Danelenen lagun mina eta Amaiaaren mutil-laguna da. Beti pentsatzen egoten den gaztea da. Kiroletan oso ona da

eta neskekin egotea ez dio batere lotsarik ematen, baina ez zaio gustatzen neska askoren artean egotea. Bihotz handiko gaztea da eta saiatzen da besteentzako gauza hoberenak egitea. Andrea izeneko auzoko bat dauka eta hark daukan arazoa konpontzeko lan handia egiten du Ximonek.

Amaia Haren klaseko kideak bezala, 15 urteko neskatila bat da. Begi ederrak ditu. Ximonen neska-laguna da baina askotan Danelen neska-laguna dela iruditzen du. Oso neska jatorra da eta istorioan zehar saiatzen da Danelek nesken aurrean daukan lotsa kentzen, baita ere hainbat arazo gehiagotan laguntzen dio.

Egituraketa

Kapitulutan banatuta dago eta egitura lineala erabiltzen da, hau da, narratzailea ordena kronologiko bat erabiltzen du istorio osoan gertatzen diren gertaerak kontatzeko. Ez da erabiltzen narrazio eliptikorik, hau da, ez dira kentzen ez beharrezko elementuak eta horregatik elkarrizketa asko daude.

Baliabideak

Istorio hau modu bitxi eta barregarri batean kontatuta dago, gazteen hitz eta esamolde ugari erabiltzen dituelako; eta gainera segun ze pertsonaia den gazte hitzak erabiltzen ditu ala ez. Adibidez:

- **Antxon Ibarbia** *"Aupa zu, Fray Gabilondo!"* (26)
- **Jimbo Larrea** *"Aupa, jefe, nire idoloa zara!"* (40)

Narratzailea orainaldian eta hirugarren pertsonan hitz egiten du.

Idazleak kapitulu batean hiru pertsonai nagusiak deskribatzen ditu eta horrek asko laguntzen du pertsonaia imajinatzeke.

Bakarrik bi baliabide estilistiko mota erabiltzen ditu:

- **Metafora:**
 "zuek bezalako orangutan koadrila bat inguruan izanda!" (40)
- **Esamoldea:**
 Jo eta su, gainera! Txorradarik gabe! (23)

Iritzia

Liburu hau oso entretenigarria da arrazoi batzuegatik. Horietako bat da gaur egungo gazteak hitz egiten duten bezala idatzita dagoela eta hori oso erakargarria izan ahal da gazteentzat. Bestea, azkenean lezio garrantzitsu bat ematen duela. Irakasten dute zure inguruneko pertsonak arazoren bat badute, ahal izanez gero, lagundu behar dela, era onak eta txarrak daudela laguntzeko, baina garrantzitsuena da laguntzea. Gainera, zera ere transmititu nahi dute: zerbait ondo eginez gero, norberaren bizitzan lehenago edo geroago zerbait positiboa gertatuko zaigula.

Obra hau ulertzeko oso erraza da. Irakurtzen hastean konturatzen gara horretaz, zeren eta ikusten da nola gaur eguneko pertsona gehienek erabiltzen dituzten hitzak erabili dituela idazleak. Hitz arraro

batzuk izan ezik, bestea oso ondo ulertzen da. Gainera, hitz arraro hauek testuinguruarekin ondo ulertzen dira.

Istorio guztia igarotzen du protagonista 4. mailan dagoen bitartean. Horrek misterio gehiago ematen dio, zeren eta irakurleak ez daki nola sartu duen idazleak protagonistaren urte oso bat horrelako liburu luze batean eta, orduan, gehiago irakurri nahi du. Gainera, kontatzeko modua klasikoena baina hobereena da, narratzaileak istorioa kontatzen du eta elkarrizketa asko ere sartzen ditu.

Liburuaren gauzarik txarrena da kapitulu askotan banatuta dagoela eta batzuk oso luzeak direla; gainera, ez dago marrazki bat ere. Baina hori ez da aitzakia, obra honek merezi du gazteek irakurtzea.

Bibliografia

San Ferminetan, Lesakan, John Andueza. Elkar.

Webgrafia

<http://www.euskara.euskadi.net/>

<http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irakurgai-mailakatuak>

<http://www.xuxen.com/aldatu.php>

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

<http://www.atalak.eus/>

